

Adituak



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Adituen ezinbesteko laguntza erabiltzen dut nire lan esparruan, medikuntzan. Gaur egun, Internetek mila aukera ematen dizkigu iritzi berriak eta harrigarriak topatzeko, bai eta manipulazio asko ikusteko ere, baina pertsona jakintsuak topatzen ditudanean haien ekarpenak benetan eskertzen ditut. Oso urrunera joan gabe, pandemiaren zurrunbiloaren eta nahasmenaren erdian, hainbat aditu interesgarri aurkitu nuen, irizpidedunak eta jantziak; baina, tamalez, ez zuten inolako tokirik izan masa-komunikabideetan, hain beharrezkoa zitzaigun argia eman ahal izateko. Aditu horiek niretzat lagungarri dira, oraindik orain, beste begirada bat izateko, begirada libre eta desberdina. Gehien-gehienak “luzerako galtzaileak” izan eta izaten dira, batez ere interes ilun eta zikinetatik oso urrun mantentzen direlako, eta, gainera, mundua aldarazteko eta hobetzeko prest daudelako.

Baina emakume eta gizon jakintsu eta argitsu horien parean, bestelako “aditu” eta “espezialistak” ere agertzen dira

Pandemiari buruzko
desinformazioari
ekin eta gero orain
geopolitikaren alorrean
ari dira, lasai asko,
lehengo harrokeria eta
ausarkeria berarekin

masa komunikabideetan egunero. Batzuk irakasleak, beste batzuk “arrazako kazetariak” edo profesional ospetsuak, guztiak beldurraren diskurtso menderatzaileak elikatzen prest. Gehienek behin eta berriro ukatu dute edozein eztabaidaren aukera, eta, aldi berean, dogma bakarren bozeramale bihurtu dira, ikuspegi ezberdinak edo disidenteak gupidarik gabe irainduz.

Eta orain, berriro ere, istorioa errepikatzen ari da: bat-batean gerrari buruzko “adituak” agertu dira nonahi. Are gehiago, batzuk rola errepikatzen ari dira, eta pandemiari buruzko desinformazioari ekin eta gero orain geopolitikaren alorrean ari dira, lasai asko, lehengo harrokeria eta ausarkeria berarekin. Hamaika datu nahasten dituzte armeei, estrategia militarrei edota populazioaren beharrezkoen eta kalteei buruz. Hainbeste pertsonen –hildakoak edo bizirik daudenak– irudi lazgarriekin jolastean, errespetu falta itzela eta neurrigabeko lotsagabekeria adierazten dute. Haien helburu bakarra emozio primarioak sortzea da: gorrotoa eta beldurra. Ezin dugu ahaztu “aditu garaile” horiek guztiak oso interes jakinak defenditzen dituztela eta komunikazio oligopolioek horretarako erabiltzen dituztela, noski.

Horrela dago, tamalez, gaur eta hemen, komunikazioaren negoziua, eta horrexegatik ahalegin handiak egin beharko genituzke informazio iturri alternatiboak arakatzeko, “luzerako galtzaileen” iritziak izan arren. ●



endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

Bertakoaren balioa

Eman bertako produktuei merezi duten tokia. Gurean, Hondarribian ekoiztutako landareak aurkituko dituzu.

[Online denda](#)

